



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSA OHARRA

Foru Aldundiak maiatzaren 5ean zabalduko dau Bakioko Elkartegia, "euki barritzaile handia" daukan surfaren industria bultzatzeko asmoz

Bilbon, 2014ko zezeilaren 13an.

Bakioko Txakolingunea eraikineko solairu bi hartuko dituan Elkartegia datorren maiatzaren 5ean inaugurauko da, aurreikusitako azken epea “baino lehen”. Ekipamendu barriz osatutako sei mila metro karratu izango dira, eta Aldundiak, Azpiegiturak foru soziedadearen bitartez, “euki barritzaile handia” daukan surfaren industria ezartera bideratu gura dau, Imanol Pradalesek, Ekonomiaren Sustapenerako foru diputatuak Batzar Nagusien aurrean egindako agerraldian gaur adierazo dauenez. Bakioko kostaldeak “tradizino luzea dauka uretako kirolen arloan, surfean edo `wave-ski´-an, adibidez”. Aldundiak, “hurrengo urteetan hazten jarraituko dauan eta oso negozio bolumen handiak izango dituan” sektorearen potentzialtasunaren olatuan igon gura dau, “Bakio” markagaz lotutako “hirugarren arloko” industria bultzatzeko.

Diputatuaren berbetan, helburua “eskualdeak dituan potentzialtasunak ahalik eta gehien aprobetxetea da, aisiagaz eta turismoagaz erlazionautako sektoreetan batez be, negozio aukera barriak bultzatzeko”. Horreen artean, Ekonomiaren Sustapenerako Sailak, uretako kirol horreek egiteko “erroparen eta osagaien diseinutik hasi eta behar dan ekipamendu osoa” landuko daberen enpresak erakarri gura ditu, bere sailak “leku mailan enpresak sortzeko eta autoenplegua sustatzeko” aurrera daroan ildoari jarraituz.

EH Bilduk aurkeztutako agerraldi eskaereari emondako erantzunean, Pradalesek Azpiegiturak soziedadearen eta Bakioko Udalaren artean sinatutako hitzarmenari buruzko datuak emon ditu, Udalaren esku dagoan “Txakolingunea” eraikina 75 urtetarako Foru Aldundiari lagateko, 3,2 milioi euroren truke. Foru soziedadeak, 958 metro karratu dituan beheko solairua hartuko dau. Beheko solairu horretan turismo bulegoa dago martxan une honetan. Bigarren solairua (979 metro karratu) eta hirugarrena (166 metro karratu), aitatutako enpresa horreek martxan jartera zuzenduko ditu. Lehenengo solairuari jagokonez, Bizkaikoak soziedadeak kudeatuko dauen “Txakolinaren” interpretazino zentroa jasoko dau. Interpretazino zentro hori “sei aste barru baino lehen” zabalduko da jentearantz, joan dan astean Kultura diputatu andreak iragarri eban moduan.

EH Bilduk Elkartegien egoera orokorrari buruz egindako itaunari jagokonez, Pradalesek 10 elkartegitan 232 bulego modulu dagozala argitu dau, eta horreetatik 139 beteta dagozala, “%60a”. Modulu industrialei jagokonez, 128 dagoz, 5 elkartegitan banatuta, eta horreetatik 80tan jardueraren bat egiten da, hau da, “%62,5ean”. Ehuneko hori %72koa izango litzateke Urduñan zabaldu dan azkena kontauko ez balitz. Metro karratuei jagokonez, bulegoek hartzen dituen 15.000 metro karratuek eta modulu industrialek hartzen dituen 40.310 metro karratuek %59ko okupazinoak erakusten dabe.

Batzarretako taldeen txandan, EH Bildu “arduratuta” agertu da Txakolingunea proiektuan inbertitu dan diru publiko kopurua dala eta “ia 10 milioi euro” –eraikuntza eta lagapena gehituta– “gaur egun turismo bulego bat eukiteko”, Joseba Gezuraga batzarkideak adierazo



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

dauenez. PP taldearen ustez, Aldundiak “alderantziz” egin dau, eskualdearen beharrak eraikina egin eta gero azertu ditualako. PSE taldeari jagokonez, ados agertu da Aldundiak emondako informazioagaz, bere ustez Bakioko Elkartegia “epe eta forma” barruan dagoalako.

BEC-EKO APARKALEKUA ORDAINTZEKO MAKINA GEHIAGO

Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomia eta Ogasuneko batzordeak arauz besteko proposamen bat onartu dau, Aldundiak egin beharreko gestioak egin daizan BEC-en aurrean, azoka barrutiko aparkalekuetan ordaintzeko makina gehiago instalatu daitezkan. PP taldeak proponidutako ekimenaren helburua, jente asko batzen daben ekitaldi jakin batzuen bukaeran gertatzen diran “15 minutu baino gehiagoko” ilarak saihestea da. Proposamena onartu egin da PP, PSE-EE eta EH Bildu taldeen aldeko botoagaz eta EAJ-PNV-ren abstentzioagaz.

Batzarretako EAJ-PNV taldea izan da BEC-en dagozan “22 makina baliogabetzaileak” –18 atarian, 2 konbentzinoen eraikinean eta beste 2 Bilboko Metroaren sarreran–, eskaerari erantzuteko “nahikoak” dirala defendidu dauen bakarra. Dana dala, jeltzaleek onartu dabe pilaketak “ezinbestekoak” dirala jente asko batzen dan ekitaldietan. Oscar Arana jeltzaleak, azoka eremuaren ebakuazino ordenatua arintzeko martxan jarri diran hobekuntza neurriak aiatatu ditu: makinetan ordainketa aurreratzeke aukerea, “aurre-ordainketa sistemearen” bitartez; aparkalekuaren urteera “sektorizatua” eta Barakaldoko Udalaren laguntzea, bertako udaltzaingoak azoka inguruko trafikoa arindu daian. Neurri horreek hor dagozan arren, PP taldearen ustez arazoak “hor jarraitzen dau”, eta hori konpontzeko eskaerea egin dau, kontuan izanda, batez be, irailean Bizkaia Arenak Saskibaloiko Munduko Txapelketako norgehiagokak jasoko dituala.

NEW YORKEKO BAR BASQUERI BURUZKO AZALPENAK

Saio berean, EH Bilduren eskaerari erantzunez, Imanol Pradales Ekonomiaren Sustapeneke diputatua batzordearen aurrean agertu da, Aldundiak New Yorkeko Bar Basquen inbertitu dituan 90.642 euroei buruzko azalpena emoteko. Aldundike arduradunak argitu dauenez, diru hori, Aldundike arduradunen eta CGM taldeak kudeatzen dauen jatetxe horretako sukaldeetan behar egiten daben chef-en eta sukaldari taldeetako kideen 27 joan-etorriak eta transferrak ordaintzeko erabili zan.

Diputatuak adierazo dauenez, EEBB-etako hainbat uritan, New Yorken, Miamin, eta baita Mexikon be, hainbat motako eta fusiotako jatetxeak dituan talde “garrantzitsu” horregaz sinatutako akordioaren barruan, Bizkaiaeren eta bertako gastronomiaren sustapena jasoten zan, gure lurraldeke chef “hoberenak” aldiaren behin parte hartuz Manhattanen, “gastronomiaren mundu mailako erdigune garrantzitsuenetako batean, medioetan oihartzun gehien daukien gastronomia arloke kritikariak dagozan eta turista “gourmeten” potentzial handiena daukan lekuan”. Pradalesek adierazo dauenez, 5.000 pertsonak dastatu ebezan euskal sukaldarietako prestautako menuak, eta 30.000 izan ziran Euskal Herriko eta Bizkaiko gastronomiaz gozatu ebenak, Basque tabernak 2012ko apirilean ateak itxi ebezan arte. Zenbaki horreek ikusita, Euskal Herriko eta Bizkaiko nortasuna transmitiduteke eta sustatzeko jarduketea “arrakastatsua” izan dala esan dau diputatuak. Zenbat kostauko zan New Yorken holango sustapen kanpaina bat egitea? 90.000 eurogaz kanpaina diseinetako be ez genduan eukiko”, erantzun dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Batzarretako taldeek Aldundiaren asmoak “onak” zirala esan dabe, baina emaitzak gehiago zehazteko eskatu dabe. EH Bilduko Asier Vegaren eretxiz, diru “asko” inbertitu da “oso gitxi” iraun dauen “abentura” batean. “Ez dogu frutu askorik emon dauenik ikusten, sukaldarientzako esperientzia ona izan ezik”, esan dau. PSE-EE-k uste dau proiektuaren “eragin mediatikoaren ebaluazioa” egin behar dala oraindino. PP taldeak kritikau egin dau Aldundiak, lehenengo unean, Estatu Batuetako turismoak Bizkaian izan dauen eraginari buruzko “datuak” emon ez izana. Pradalesek erantzun dauenez, bisitetan gaituen estatubatuarren kopurua “%8,3” hazi da azkeneko urteetan.

INCOESAREN EGOEREA

EH Bilduk egindako agerraldi eskaerearen bitartez, Incoesa enpresearen eta bertako beharginen egoerea Batzar Nagusietara itzuli da. Gai horri jagokonez, Ekonomiaren Sustapeneko diputatuak, jasotako diru-laguntzak eta atzerapeneko interesak itzuli beharra eta enpresa bi horreek datozan 8 urteetan Aldundiaren inolako laguntzarik jaso ezin izana eragingo dauen Incoesa-Trafos eta Incoesa Trafodis enpresen deslektuzte adierazpenagaz batera, joan dan urtarrilaren 30ean Aldundiak beste espediente bat zabaldu ebala iragarri dau, enpresa horreek diru-laguntzea jasotzeko eskatzen ziran baldintzak beteten ebezala eta laguntzen jomugea araudiagaz bat etorrela egiaztatu eien. Une honetan egiten ari dan ikerketa prozesuan, bere sailak, baldintza horreek ez zirala bete erakusten daben “hainbat aztarna” ikusi ditu.

DONEJAKUE BIDEA BIZKAITIK

Horrez gain, PP taldeak Ekonomiaren Sustapeneko diputatuaren agerraldia eskatu dau, berak zuzentzen dauan sailak, Bizkaitik igaroten dan Donejakue Bidearen sustapenerako Eusko Jaurlaritzagaz eta Basquetourregaz aurrera eroan beharreko alkarlana zelan planteatu behar dauen azaldu daian. Pradalesen eretxiz, sustapen hori Euskal Turismoaren Plan Estrategikoa 2020 izenekoaren barruan sartu behar da. Plan Estrategiko hori “oso aurreratuta dago”, eta bigarren zirriborroa bihar aurkeztuko da. Arlo horretan, Pradalesek aurreratu dauenez, Eusko Jaurlaritzari eta ganerako Aldundiei eskaerea egingo deutse, Euskal Herritik igaroten dan Done Jakue Bidea sustatzeko jarduketak sartzeko eta jarduketa horreek garatzeko, Eusko Jaurlaritza buru izango dan ekimenaren bitartez.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

La Diputación abrirá el 5 de mayo el Elkartegi de Bakio con intención de impulsar la creación de una industria del surf con "alto contenido innovador"

Bilbao, a 13 de febrero de 2014.

El Elkartegi de Bakio, que ocupará dos plantas del edificio Txakolingunea de esta localidad costera, se inaugurará el próximo 5 de mayo, "antes" del plazo final previsto. Serán más de mil metros cuadrados de nuevos equipamientos que la Diputación, a través de la sociedad foral Azpiegiturak, quiere dedicar a la implantación de una industria de surf con "alto contenido innovador", según ha explicado hoy el diputado foral de Promoción Económica, Imanol Pradales, en una comparecencia en las Juntas Generales. La zona costera de Bakio "posee una larga tradición en la práctica de deportes náuticos como son el surf o el `wave-ski`". La Diputación quiere subirse a la ola de la potencialidad de un sector "que seguirá creciendo en los próximos años con unos volúmenes de negocio muy altos" para levantar una industria "terciaria" vinculada a la marca "Bakio".

A juicio del diputado, se trata de "aprovechar al máximo las potencialidades que presenta la comarca, principalmente en los sectores relacionados con el ocio y el turismo para impulsar nuevas oportunidades de negocio". Entre ellas, su departamento quiere atraer la creación de empresas que vayan "desde el diseño y confección de ropa y accesorios, hasta el equipamiento necesario" para la práctica de estos deportes acuáticos, dentro de la línea de su departamento por la "promoción del autoempleo y la creación de empresas a nivel local".

En su contestación a la comparecencia presentada por EH Bildu, Pradales ha ofrecido datos sobre el convenio suscrito entre Azpiegiturak y el ayuntamiento de Bakio para la cesión, por un plazo de 75 años, del inmueble municipal "Txakolingunea" a la entidad foral, por un importe de 3,2 millones de euros. La sociedad foral ocupará la planta baja, de 958 metros cuadrados en donde ya funciona la oficina de turismo, y dedicará la segunda (979 metros cuadrados) y la tercera (166 metros cuadrados), para la implantación de las citadas empresas. Por su parte, la planta primera acogerá el centro de interpretación del "Txakoli" que será gestionado por Bizkaikoa y que se abrirá al público "en menos de seis semanas", como ya anunció la semana pasada la diputada de Cultura.

OCUPACIÓN DE LOS ELKARTEGIS

Respecto a la cuestión planteada por EH Bildu sobre la situación general de los Elkartegis, Pradales ha detallado que, en la actualidad, existen 232 módulos de oficinas en 10 elkartegis, de los cuales se encuentran ocupados 139, "el 60%". En cuanto a módulos industriales, son un total de 128, distribuidos entre 5 elkartegis, de los cuales 80 están con actividad, es decir, "un 62,5%", un porcentaje que ascendería al 72% de no contarse el último puesto en marcha en Orduña. Por metro cuadrado, la ocupación de los 15.000 metros cuadrados de oficinas y los 40.310 metros cuadrados de módulos industriales, alcanzaría el 59%.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En el turno de los grupos junteros, EH Bildu se ha mostrado “preocupado” por la cantidad de dinero público invertido en el proyecto Txakolingunea, “casi 10 millones de euros” –sumando construcción y cesión- “para a día de hoy tener una oficina de turismo”, según el apoderado Joseba Gezuraga. Para el PP, la Diputación lo habría hecho “al revés” al estudiar las necesidades de la comarca después de tener el edificio hecho. Por su parte, el PSE se ha mostrado conforme con la información ofrecida por la Diputación al entender que el proyecto del Elkartegi de Bakio está “en plazo y forma”.

MÁS MÁQUINAS PARA PAGAR EL APARCAMIENTO DEL BEC

La comisión de Economía y Hacienda de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado una proposición no de norma para que la Diputación realice las gestiones oportunas ante el BEC, de cara a que instalen un mayor número de máquinas de pago de aparcamiento en el recinto ferial. La iniciativa propuesta por el PP pretende evitar las colas de “más de 15 minutos” que se producen principalmente por la salida simultánea de público en determinados eventos multitudinarios. La propuesta ha sido aprobada con el apoyo de PP, PSE-EE y EH Bildu, y la abstención del PNV.

Únicamente, el grupo juntero del PNV ha defendido que las “22 canceladoras” existentes en el BEC -18 en el atrio, 2 en el edificio de convenciones y otras 2 en el acceso a Metro Bilbao-, son “suficientes” para atender la demanda, pese a que admiten que las retenciones son “inevitables” en acontecimientos masivos. El jeltzale Oscar Arana se ha referido a las medidas de mejora que se han implantado para agilizar la evacuación ordenada del recinto ferial como son: la opción de adelantar el pago en las máquinas mediante un “sistema prepago”, una salida del aparcamiento “sectorizada” y la colaboración del ayuntamiento de Barakaldo para que su policía municipal agilice el tráfico en los alrededores de la feria. Pese a estas medidas, el PP cree que el problema “continúa” e insta a resolverlo en vista de que, en septiembre, el Bizkaia Arena acogerá los partidos del mundial de baloncesto.

EXPLICACIONES SOBRE EL BAR BASQUE DE NUEVA YORK

En la misma sesión, a petición de EH Bildu, el diputado de Promoción Económica, Imanol Pradales, ha comparecido para dar cuenta de los 90.642 euros invertidos por la Diputación en el bar Basque de Nueva York. El responsable foral ha aclarado que esta cantidad fue destinada para pagar los 27 desplazamientos y transfers de las responsables forales, y de los chefs y los miembros de los equipos de cocineros que trabajaron en los fogones de este restaurante gestionado por el grupo CGM.

Según el diputado, en el acuerdo con este “reconocido” grupo empresarial que cuenta en EE UU con restaurantes de diversa temática y fusión en ciudades como Nueva York, Miami o México, se incluía la promoción de Bizkaia, y de su gastronomía, a través de la participación periódica de los “mejores” chefs del territorio en el mismo corazón de Manhattan, una de las “mecas mundiales de la gastronomía, donde están los críticos gastronómicos más mediáticos y donde el potencial de turistas gourmets es muy alto”. Pradales ha afirmado que fueron 5.000 personas las que degustaron los menús diseñados por los chefs vascos y 30.000 las que disfrutaron de la gastronomía vasca y vizcaína hasta que el Basque cerró sus puertas en abril de 2012. A la vista de estos números, el diputado ha calificado como un “éxito” la acción de transmisión y



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

promoción de la identidad vizcaína y vasca. “¿Cuánto hubiera costado una campaña de promoción en Nueva York? Con 90.000 euros no tendríamos ni para el diseño de la campaña”, ha manifestado.

Los grupos junteros han calificado de “buenas” las intenciones de la Diputación, pero han pedido que se concreten aún más los resultados. Para Asier Vega, de EH Bildu, se ha invertido “mucho” dinero en una “aventura” que ha durado “muy poco”. “No vemos que haya habido muchos frutos, salvo una buena experiencia para los cocineros”, ha dicho. El PSE-EE considera que queda pendiente hacer una “evaluación de la repercusión mediática” del proyecto. Por su parte, el PP ha criticado que la Diputación no haya ofrecido en un primer momento “datos” de la repercusión del turismo americano en Bizkaia, a lo que Pradales ha respondido que el número de estadounidenses que nos visitan ha crecido un “8,3%” en los últimos años.

SITUACIÓN DE INCOESA

Por medio de una petición de comparecencia de EH Bildu, la situación de la empresa Incoesa y de sus trabajadores ha retornado a las Juntas Generales. En este asunto, el diputado de Promoción Económica ha anunciado que, de forma paralela a la declaración de deslocalización de las empresas Incoesa-Trafos e Incoesa-Trafodis, que incluyen el reintegro de las subvenciones obtenidas y los intereses de demora, y la imposibilidad de que estas dos empresas puedan recibir otras ayudas forales en los próximos 8 años, el pasado 30 de enero la Diputación abrió otro expediente para obligar a estas empresas a que acrediten el cumplimiento de las condiciones requeridas para la obtención de la subvención y su destino conforme a la normativa, ya que el departamento ha visto en el proceso de investigación en curso que existen “suficientes indicios” de incumplimiento.

CAMINO DE SANTIAGO POR BIZKAIA

A su vez, el PP había pedido la comparecencia del diputado de Promoción Económica para que explicara cómo iba a plantear el departamento que dirige la colaboración con el Gobierno Vasco y Basquetour para la promoción del Camino de Santiago en Bizkaia. Pradales entiende que tal promoción se debe enmarcar en el Plan Estratégico del Turismo Vasco 2020 cuya elaboración “está ya muy avanzada” y cuyo segundo borrador se presenta mañana. En este marco, Pradales ha previsto que propondrá tanto al Gobierno Vasco como al resto de Diputaciones, la inclusión de actuaciones de promoción del Camino de Santiago en Euskal Herria y el desarrollo de las mismas con el liderazgo del Ejecutivo de Lakua.